

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

*Euskara Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzak, 2019ko deialdia.*

Osoko bilkurak 2015eko otsailaren 26an onartu zituen Euskara Departamentuak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 42 zk., 2015eko martxoaren 4koa). Aipatutako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera, 2019ko urtarrilaren 31n, Tokiko Gobernu Batzarrak.

ERABAKI DU

*Lehenengo.*

Honako dirulaguntza hauek emateko 2019ko deialdia onartzea:

- a) Errotuluak, irudi korporatiboa eta web gunea euskaraz jartzen dituzten entitateei dirulaguntzak.
- b) Euskara ikasteko dirulaguntzak.
- c) Aisialdiko begirale ikastaroa Oñatin egiteko dirulaguntzak.

1. Finantziazioa.

Finantziazioa 2019ko Aurrekontuetan 83, 84, 104 eta 5212 kodea duten diru-atalen kontura egingo da, eta guztira 14.575 eurokoa izango da.

2. 2019ko eskaerak aurkezteko epea.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzetarako eskaerak, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita aurkeztu daitezke. Ikastaroen kasuan, ikastaroa bukatu eta hurrengo hilabetean aurkeztu beharko dira eskabideak.

Errotulu eta webguneetarako eskabidea, berriz, errotulua jarri aurretik egin behar da, betiere 2019ko urtearen barnean, testua hizkuntzaren aldetik zuzena dela ziurtatzeko.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Oñati, 2019ko otsailaren 7a.—Alkatea. (812)

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Convocatoria de 2019 de subvenciones con cargo a los programas gestionados por el Departamento de Euskera.*

De acuerdo con las bases reguladoras de la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por Departamento de Euskera, aprobadas en el acuerdo plenario de fecha 26 de febrero de 2015 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 42, de 4 de marzo del 2015), la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Oñati.

ACUERDA

*Primero.*

Aprobar la convocatoria correspondiente a 2019 de las siguientes subvenciones:

- a) Subvención a entidades que ponen en euskera sus rótulos, imagen corporativa y sitio web.
- b) Subvenciones para el aprendizaje de euskera.
- c) Subvenciones para realizar cursos de monitor de tiempo libre en Oñati.

1. Financiación.

La financiación se realizará con cargo a las partidas código n.º 83, 84, 104 y 5212 de los Presupuestos de 2019, con un total de 14.575 euros.

2. Plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Las solicitudes por los distintos cursos deberán ser presentadas dentro de un mes posterior a la finalización del curso.

La solicitud para colocar el rótulo comercial se realizará antes de su colocación, dentro del año 2019, para asegurar que el texto es lingüísticamente correcto.

Lo que se publica para general conocimiento.

Oñati, a 7 de febrero de 2019.—El alcalde. (812)